

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 570/2021 Erabakia, irailaren 29koa. Onestea 341 zenbakiko partzuegoaren eraketa Urizaharreko Administrazio Batzarrekin, Urizaharreko udalerriko 1. poligonoko 99. lurzatiko A eta B azpilurzatietan**

Mendi Zerbitzuak jakinarazi du Urizaharreko Administrazio Batzarrak 2016an eskaera egin zuela bere jabetzako makaldi bat mozteko Urizaharreko 1. poligonoko 99. lurzatiko 2,10 hektareako azalera batean.

Adierazitako datuen arabera, I-214 kloneko 718 makal moztu ziren guztira, 584 m<sup>3</sup>-ko zur bolumenarekin. Makaldiak 30 urte baino gehiago zituen moztu zenean, argi eta garbi dagokion garaitik kanpo, eta baso tratamendu egokirik ez egoteaz gain lurrairen behealdea putzutsua zenez, errentagarritasun txikia izan zuen mozketan egin zenean.

Ikusita ezarri nahi den makaldi berri batean behar diren laborantza zainketak garaiz eta behar den moduan egin beharko liratekeela, Urizaharreko Administrazio Batzarrak uste du hura kudeatzeko modurik egokiena lurren jabe den erakundearen eta Arabako Foru Aldundiaren arteko partzuego baten bidez izango litzatekeela. Horretarako, Urizaharreko 1. poligonoko 99 B azpilurzatiaz gain (bertan egon da moztu berri den makaldia), 99 A azpilurzatia eskaintzen du landaketarako, tradizioz laborantzarako erabiltzen dena.

Ondorioz, Urizaharreko Administrazio Batzarrak, Erregistro Orokorrean 2017ko martxoaren 7ko data duen eskaeraren bidez, Urizaharreko 1. poligonoko 99 A eta B azpilurzatietan baso partzuego bat sortzeko eskatu zion Mendi Zerbitzuari.

Hortaz, eremu hartara zenbait aldiz joan eta gero, landaketa proposamena idatzi zen, aintzat hartuta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ezarritako baldintzak.

Proposamena idatzi ondoren, 2,63 hektareako azalera basoberrituko da, eta lanak gauzatzeko oinarritzko aurrekontua 14.537,57 euro da (BEZa aparte).

Lanak gauzatzeko aurrekontu zenbatetsia kontuan izanik, bidezkoa da kontratu txiki bidez izapidetzea, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak 118.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Obra kontratu txikia denez, obren aurrekontua sartu da, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak 118.2 artikuluan xedatzen den bezala. Proiektua behar izateari dagokionez, obren izaera, ezaugarriak eta garrantzia ikusita, ez da beharrezkoa.

Horretarako, eskaintzak aurkezteko eskatu zaie Piérola Hermanos eta Servicios Forestales y Viveros Alcalde, SL enpresei, eta bi eskaintza hauek aurkeztu dituzte (BEZa aparte):

- Piérola Hermanos: 14.537,57 euro.
- Servicios Forestales y Viveros Alcalde, SL: 15.266,10 euro.

Aurkeztutako eskaintzak aztertuta, proposatzen da lanak Piérola Hnos. Actividades Agropecuarias y Forestales enpresari adjudikatzea, berme nahikoarekin gauzatu ditzakeela irizita, 15.991,33 euroko zenbatekoan, BEZa barne (ehuneko 10). Zenbateko hori behar bezala egingdako fakturak aurkeztu ostean ordainduko da, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko gastuen aurrekontuko 40.1.06 45.01.6.4.0.90.01.7 "Partzuegoko mendien baso kudeaketa jasangarria" partidaren kontura.

Horren ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren eta Urizaharreko Administrazio Batzarraren artean 341 zenbakiko partzuergoa eratzeari Urizaharreko 1 poligonoko 99 lurzati A eta B azpilurzatietan, guztira 2,63 hektareako azalera batean, basoberritze proposamenean jasotakoaren arabera.

Bigarrena. Proposatutako partzuergoa arautuko duten klausulak:

a) Urizaharreko Administrazio Batzarrak konpromisoa hartzen du goian aipatutako lursaila lagatzeko, Arabako Foru Aldundiak baso-sartzea egiteko.

b) Arabako Foru Aldundiak, bere aldetik, bere gain hartuko du basotze lanek eta basotutako eremuen mantentzeak eragindako kostu osoa.

c) Partzuergoaren iraupena dagokion garaia helduta makaldia mozten den unera arte ezarrita dago, edo lehenago mozten ez bada, jatorrizko partzuergoa eratzeak akordioa egin zenetik 30 urtera arte.

d) Landaketen aprobetxamendutik lor litezkeen onurak erdi bana egingo dira partzuergoko bi kideen artean.

Hirugarrena Mendiei buruzko martxoaren Foru Arauaren 55.5 artikuluan xedatutakoarekin jarraituz, partzuergoa eskritura publiko bihurtu eta berak eratzten duen lurgain eskubidearen xede diren finken jabetza erregistroan inskribatuko da.

Laugarrena. Onespena ematea, batetik, Urizaharreko 1 poligonoko 99 lurzati landatzeko lanak kontratu txiki bidez kontratatzeari, Urizaharreko Administrazio Batzarraren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko partzuergoaren bitartez, 15.991,33 euroko adjudikazioa (ehuneko 10eko BEZa barne) eginda, eta gauzatzeko 3 hilabeteko epearekin, baina betiere 2021eko abenduaren 31 baino lehen, eta, bestetik, lanak Piérola Hnos. Actividades Agropecuarias y Forestales enpresari adjudikatzeari (IFZ: J-31239528) enpresari, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko gastuen aurrekontuko 40.1.06 45.01 6.4.0.90.01.7 "Partzuergoko mendien baso kudeaketa jasangarria" aplikazioaren kontura (zorpekin erreferentzia: 21.1.21.105.3256/000).

Bosgarrena. Foru administrazioeko fakturen kontabilitate erregistroa sortu eta hori izapidetzeko prozedura onesten duen abenduaren 30eko 67/2014 Foru Dekretuak xedatutakoa betez, adjudikaziodunak dagozkion faktura elektronikoak aurkeztu beharko ditu araututako eran.

Seigarrena. Lanaren zenbatekoa ordaintzeko, behar bezala egindako faktura aurkeztu beharko da aurretik, aurreko xedapen zatian ezarritakoaren arabera.

Zazpigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratu behar dela adieraztea.

Zortzigarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 29a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LOPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**